



MERIOFERT® KIT BIDEZ OBULUTEGIA ESTIMULATZEKO GIDA

INJEKZIOA BAINO LEHEN

- Eskuak garbi itzazu.
- Beharrezko guztia prestatu:
 - Meriofert® kit barruan dagoen disolbatzailea duen xiringa.
 - Medikazio hautsezko flasko 1.
 - Prestatzeko orratza.
 - Larruazalpeko injekziorako orratz fina.
 - Alkoholez blaitutako 2 torunda.
 - Torunda lehorra.


INJEKZIOA EGITEKO URRATSAK. PRESTATZEA ETA BERRERATZEA

1. Kendu Meriofert® flaskoaren goiko aldeko plastikozko itxitura-estalkia.
2. Garbitu gomazko goiko aldea alkoholez blaitutako torunda bat erabiliz, eta itxaron lehortu arte.
3. Kendu estalkia aurrez kargatutako xiringatik, ipini orratz handiena bertan, kendu estalkia eta sartu anpoilan.
4. Sartu orratza Meriofert® flaskoaren goiko aldeko gomazko tapoiaren erdialdean, eta sartu xiringaren edukia.
5. Hautsa errazago desegiteko, orratza atera gabe eta enboloa askatu gabe, mugimendu zirkular leun bat egiten da eskuarekin, disoluzio gardena lortu arte.
6. Flaskoa ahoz behera biratu eta haren eduki guztia xurgatu.
*** Meriofert® Kit-eko flasko bat baino gehiago berreratzen duzunean, sartu berriro lehen flaskoaren edukia xiringan eta errepikatu aurreko urratsak, 3.a izan ezik.*
7. Xiringa emeki-emeki kolpatu, orratza gorantz duela, aire-burbuila guztiak goiko aldean kontzentratzeko. Sakatu poliki-poliki enboloa, horiek kentzeko.
8. Xiringa prestatzeko orratza kendu, orratz txikiena jarri eta babes-estalkia kendu.



MEDIKAMENTUA INJEKTATZEAN

- Medikamentua injektatzeko eremurik onena abdomena edo sabelaldea da, zilborraren azpian eta alboetan, zilborretik lehenengo 2-3 cm-ak errespetatuz. Egunero dosiaren injekzio-eremua aldatzea ere gomendatzen da, larruazala babesteko.
- Garbitu injekzio-eremua alkoholdun torunda batez igurtziz, eta itxaron lehortu arte (minutu bat inguru beharko duzu).
- Larruazalari gogor atximurka egin. Beste eskuarekin, sartu orratza azalean, azalarekiko 90°-ko angeluan.
- Xiringaren enboloa poliki eta etengabe sakatu, disoluzioa behar bezala injektatzeko eta larruazala ez kaltetzeko.
- Itxaron 10 segundo orratza larruazaletik kendu baino lehenago.
- Kendu orratza eta estutu injekzioaren eremuan, kotoi bat erabiliz.



INJEKZIOAREN ONDOREN

- Jarri torunda lehorra injekzio-eremuaren gainean.
- Bota ezazu berehala modu seguruan erabilitako orratza.

INFORMAZIO GEHIAGO

- Sendagaia berreraiki eta berehala erabili behar da.
- Giro-tenperaturan eduki 25°-tik behera.